



MEMORIA GARA

MEMORIA ETA GIZA-ESKUBIDEEN ZENTROA

1968an San Frantzisko Asisko eliza inauguratu zen Zaramagan. Luis Peña Ganchegui arkitekto ospetsuak egina, langile auzo batean modernitatearen ikur bihurtu zen. Ganchegui forma, filtroak eta tokia bera zaindu zituen. Olaguibeleg egindako plazan hartu zuen inspirazioa eta arkupeak klaustro bihurtu zituen, plaza estaliz gune bakar bat sortzeko asmoz.

Egiaz, ez zuen imajinatu ekintza pastoralerako sortutako gunea, 1976ko urtarriletik martxora greba hilabete horietan, eta gobernuak ezarritako murrizketen ondorioz, langileen batzar oso partehartzaileak hartuko zituela. Gasteizko Elizaren oinarriak borrokan zeuden langileak lagundu zituen eta elizetako ateak zabaldu zizkieten bilerak eta batzarrak egiteko. Horrela izan zen zorigaiztoko martxoaren 3 hartan. Arratsaldeko 17.00ean, San Frantzisko Asiskoak batzar handi bat hartu zuen.

Polizia Armatuak eliza inguratu eta gaseztatu zuen eta barruan zeuden milaka lagun ihes egiten saiatu zirenean euren defentsan eliza inguratu zutenen kontra ondo-ondotik tirokatu zituen. Emaizta ezaguna da: bost langile erail zituzten eta ehuneko luze bat zauritu zituzten, erdia balak zaurituak. Gasteiz mutu egin zen eta San Frantzisko Asiskoa sarraski horren lekuko mutua izan zen. Gaur gaurkoz, oraindik ikus daitezke balen zuloak hormetan.

Hamarkada luzeetan, elizkizunak hartu ditu, baina gertakari horien memoria bizirik mantendu eta bultzatu du hiriko ikur bat izanez. Zaramagak etengabeko populazioaren galera izan du eta, horren ondorioz, eliztarrak ere galdu ditu. Hori dela eta 2014tik eliza esanguratsuak ateak itxi ditu, auzoko beste biak zabalik dauden bitartean. Orain, San Frantzisko Asisko Fundazioak duen jaiotze erakusketa dago barruan eta 2017ko abendutik inauguratu zenetik urtean zehar aste gutxi batzuk zabalik dago. Era berean, atzeko aldean, gela txiki bat egokitu da Martxoak 3 elkarteak Zaramaga auzoan zehar antolatutako bisita gidatuen amaiera emateko.

Memoria historikoak betiko batu ditu 1976ko martxoaren 3 eta San Frantzisko Asisko eliza eta, horrekin batera, etengabe eskatu eta oraindik lortu ez diren egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermearen aldarrikapenak.

1976ko martxoaren 3a odolez hiriaren gogoan dago eta, horregatik, San Frantzisko tenpluak sarraskiaren biktimen memoriari lotutako proiektu bat har dezan eskatzen dugu eta, bide batez, memoria eta giza eskubideei lotutako politikak garatzeko balio behar du.

Hori dela eta, Apezpikutzari eskatzen diogu baimendu dezan Gasteizek leku hori memoriaren adierazgarrietako ikur bezala kontserbatzea. Elkarrizketarako borondatearekin herritarren eskaerari honi erantzun daiteke eta gaur egun jaiotzen erakusketarako beste gune bat bilatu daiteke. Proposamen honekin elkarlana eskatzen diegu instituzioei eta aldarrikapen horrekin bat egin dezaten eskatzen diogu Gasteizko jendarteari.

Eskaera honekin Gasteizko memoria inklusiboa bizirik mantentzeko ekarpena egin nahi dugu, Zaramagako San Frantzisko Asisko eliza ikur esanguratsuenetarikoa baita.



MEMORIA GARA

CENTRO DE MEMORIA Y DERECHOS HUMANOS

En 1968 Zaramaga inauguraba la Iglesia de San Francisco de Asís. Obra del conocido arquitecto Luis Peña Ganchegui, se convirtió en un símbolo de modernidad en un barrio eminentemente obrero. Ganchegui había cuidado la forma, los filtros y el espacio. Se inspiró en el propio Olaguibel para reproducir la plaza, donde los soportales se convertirían en claustro y la plaza se cubre para crear un único espacio.

Ciertamente no pudo imaginar que ese espacio destinado a actividades pastorales fuera escenario, durante los meses de huelga, de participativas asambleas obreras a causa de las restricciones gubernativas en los meses de enero a marzo de 1976. Las bases de la Iglesia vitoriana colaboraron con los obreros en lucha y las puertas de sus parroquias se abrieron para organizar reuniones y asambleas. Así fue también aquél fatídico 3 de marzo de 1976. San Francisco de Asís acogió una gran asamblea a las 17.00 horas de la tarde.

La policía armada rodeó y gaseó la iglesia y cuando las miles de personas que había en el interior intentaron huir disparó a bocajarro contra quienes rodeaban la iglesia intentando defenderlas. El resultado es conocido: cinco obreros asesinados y un centenar largo de heridos, la mitad de bala. Gasteiz enmudeció, y San Francisco de Asís fue testigo mudo de aquella masacre. Todavía hoy son visibles los agujeros de bala en su fachada.

Durante décadas, continuó albergando oficios religiosos, pero también ha seguido manteniendo y reforzando la memoria de aquellos acontecimientos, convirtiéndose en un símbolo para la ciudad. La paulatina pérdida de población de Zaramaga redujo también la afluencia de feligreses y desde 2014 la emblemática parroquia cerró sus puertas, manteniendo otras dos en este barrio. Ahora, acoge la exposición de belenes de la Fundación San Francisco de Asís, inaugurada en diciembre de 2017 y abierta al público durante unas pocas semanas. A su vez, en la parte trasera del edificio se ha habilitado un pequeño habitáculo donde finalizan las visitas por el barrio de Zaramaga organizadas y guiadas por la Asociación de Víctimas 3 de Marzo.

La memoria histórica ha unido para siempre la iglesia de San Francisco de Asís al 3 de marzo de 1976 y, con ella, a las permanentes y todavía no logradas reivindicaciones de verdad, justicia, reparación y garantías de no repetición.

El 3 de marzo de 1976 está grabado con sangre en esta ciudad y por ello, pedimos que el templo de San Francisco acoja un proyecto relacionado con la memoria de las víctimas de la masacre y que, a su vez, sirva para desarrollar otras políticas de memoria y derechos humanos cuyo proyecto compartido presentaremos.

Por tanto, reclamamos al Obispado que permita a la ciudad de Gasteiz conservar este lugar como emblemático símbolo de su memoria. Con voluntad de diálogo se puede responder a esta demanda ciudadana y encontrar otra ubicación para la exposición de belenes que acoge en la actualidad. Pedimos también a las instituciones que colaboren en esta propuesta y hacemos un llamamiento a la sociedad gasteiztarra a que se sume a esta reivindicación.

Con esta propuesta y petición deseamos contribuir al mantenimiento vivo de la memoria inclusiva de Gasteiz, uno de cuyos símbolos más significativos es la iglesia de San Francisco de Asís en Zaramaga.